

## BASQUE.

### 1 X 03. SAHATSA JAUREGI: ARTISTAK, DESBERDINAREN ORDEZKARI

OFF: Bilboko langile auzo batean gaude. Etxeen artean dagoen eraikuntza industrial batera goaz, bertako tailerren artean lan egiten baitu atal honetako protagonistak. Eskultorea da, artista plastikoa. 1984ean Brasilen jaio zen, guraso bidaiari batzuen babesean, familia hippie batean, eta honek sekulako eragina izan du beregaren eta bere artearengan.

OIER: Sahatsa? Hor da? Esaten nuen nik.... Zer moduz? Ondo? Ondo, bai, urte askotarako.

SAHATSA: Pasa.

OIER: Bai, sartu naiz eta esaten nuen: hau igual arotz batena da.

SAHATSA: Aberatsek nahi dute zu bestea izatea. Artista izan daiteke 'bestea', artista izan daiteke bohemioa. Artistak eduki dezake arazo pixka bat gazteleraz hitz egiterakoan, ze euskalduna da, badakizu? Eta orduan purutasun hori dauka. Orduan bestearen lekuan kokatzen zaituzte.

OFF: Irakaslea eta ikerlaria da Leioako Arte Ederretako Fakultatean, eta euskal arte garaikideko izen handietako bat bihurtu da. Gaur, BASQUE.-n, Sahatsa Jauregi. Euskal eskultore garaikidea.

SAHATSA: Bakarrik sentitzen zara? Bai, bai, eta oso indibiduala. Arte garaikidea, arte praktika, oso indibiduala da. Eta bueno, gainera, nik defendatzen dudana hori da. Ni ikerketa indibidualaren alde nago. Badakizu? Bai, iruditzen zait hor gauza oso interesgarriak iristen direla, eta norbera bakarka lan eginez leku oso interesgarrietara iristen dela.

OFF: Oier Aranzabal naiz, eta hau BASQUE. da. Etxepare Euskal Institutuaren podcasta. Euskal kultura eta sorkuntza garaikideari zabaldu diogun leihoa. Atal bakoitzean euskal sortzaile baten lantokira edo etxera egingo dugu osteratxoa. Kasu honetan, Sahatsa Jauregirenera bezala. Gogoratu atal gehiago ere entzun ditzakezula edozein audio plataforman. Harpidetu eta lagundu zabaltzen.

OFF: Euskal artean eskulturak sekulako pisua izan du. XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran, Mokrobejo, Durrio edo Quintintorre, edo frankismo amaieran belaunaldi arteko haustura ekarri zuten Oteiza, Txillida eta Basterretxea, besteak beste.

OFF: Jorge Oteizaren belaunaldiaren eragina aitortzen du Jauregik.

SAHATSA: Noski. Printzipioz esango nuke Txillida dela Pepsi eta Oteiza dela Coca Cola. Hau, noski, kalitatearen aldetik begiratzuz, baina ez dakit nola definitu. Nik badakit Coca Cola dela onena, baina Pepsi... Ez dakit zein den bere....

OIER: Nik ere ez dakit. Ikusi dut irudiren bat, baina ez dakit. Oteiza gustatzen zaizu?

SAHATSA: Bueno... Oteiza gustatzen zait. Esan nahi dut: gehiago baloratzen dut. Erradikalagoa izan da bere proposamenetan eta bere praktikan. Baina gero egia da ere bai... Hau pasatzen da, ez? Bat batean, Txillidaren gauzak baloratzen hasten zara. Ze urte guzti hauetan pentsatu duzu: hau merkatura saldu zen; ez dakit zer zen; familia dirudun batetik zetorren... Oteiza ere bai, baina, beno, gehiago performatu zuen klase altuko artista izatearen figura hori. Txillidak, diot. Orduan, esan dezagun, nire testuinguruan, Oteiza askoz hobeto ikusia izan dela bere proposamen erradikalengatik.

OIER: Nolakoa da zure harremana arte munduarekin? Arte merkatuaren munduarekin?

SAHATSA: Bai, beno, begira, urtetan inexistentea izan da. Ze badauka Euskal Herriko arte kontestuak partikularitate bat, leku oso gutxitan gertatzen dena, eta honakoa da: artista pila bat daude eta oso kalitate oneko gauzak egiten dira. Alegia, zu Estatura joaten zara eta mundu guztiak ezagutzen ditu euskal artistak. Diru laguntzak daude, nolabait, zure hasieran eta karrera ertainera arte, ekoizpenean laguntzen dutenak. Hori bai, laguntzak ez dira bizirauteko eta ekoizteko aldi berean. Baina ekoizpenerako badaukazu behintzat, eta bizirauteko lan bat bilatu behar duzu. Alegia, ez dago soldatarik. Oso gutxitan kontenplaten dira ordainsariak edo soldatak diru-laguntza horretan, baina ekoizteko badaukazu. Orduan, gauzak egin egiten dira. Baina gero oso irteera gutxi dago merkatura. Oso galeria gutxi daude, erakusketa espazioak ere ez daude asko, dauden artista guztiekin konparatuz. Eta iristen da garai bat, gainera, dirulaguntza horiek ere bukatu egiten direla, edo artista nekatu egiten dela prekaritateaz eta balantza horretan bizitzeaz. Badakizu: jatekoa lortzeko behar dut lan bat, baina gero estudioan ere denbora hartu behar dut, ikertzeko eta denbora galtzeko eta gauza berriak bilatzen joateko... Eta martxa hori oso neketsua da.

OIER: Kontakturik ez zenuen izan..., baina bat-batean, baduzu.

SAHATSA: Galeria mundua, kolekzionista mundua, mundu guzti hori da..., Uau!, klase super altuko gizarte baten parte da. Oso kapritxosoa.

OIER: Beti izan da, ez?

SAHATSA: Beti izan da. Historikoki beti izan da. Orduan, batzuetan, oso disforiakoa da zuk begiratzun errealitatea eta zuk ezagutzen dituzun artista lagunen errealitatea, eta gero beste mundu hori. Nik, momentu batean, hasieran agian konplexutik bizi nuen: "Ni ez naiz zuek

bezalakoa, hortaz, ez dakit zuk nahi duzuen artista aberats bat ote den.” Gero pentsatu nuen ezetz. Aberatsek nahi dutena da, zu, ‘bestea’ izatea. Artista izan daiteke ‘bestea’, artista izan daiteke bohemioa. Artistak eduki dezake arazo pixka bat gazteleraz hitz egiterakoan. Ze euskalduna da, badakizu? Eta orduan purutasun hori dauka. Orduan ‘bestearen’ lekuan kokatzen zaituzte, eta orduan...

OIER: Artistari aitortzen zaizkio lizentzia batzuk, artista delako.

SAHATSA: Bai, hori da. Eta ez duelako aberatsen arteko kodigo horietan sartu beharrik.

OIER: Zu, ‘bestea’ zara.

SAHATSA: ‘Bestea’, hori da. Hori da. Beno, hobeto... Zeren horrelakoa naiz, beraz...

OIER: Kanpora atera zara. Merkatua aipatu dugu. Horrek ere ekarri du zu kanpora ateratzea.

SAHATSA: Bai.

OIER: Nola hartu zaituzte kanpoan? Zer pertzibitu duzu?

SAHATSA: Bueno, ba, oso kurioa da, ze igual hemen ez nintzen hain kontziente, baina kanpotik oso modu zuzenean irakurtzen zait. Eta irakurketa hau da: zu zure euskaldun eskultoreen tradizio, genealogia edo lerro horretatik zatoz, eta erantzun bat ematen diozu. Hau da, nire praktikak nire herentziari edo nire oinordekotzari erantzuteko lehentasuna edukiko balu bezala. Eta nik pentsatzen dut: beno, hori zure irakurketa da, kanpotik irakurtzen duzuna, nonbaiten kokatu nahi didazulako.

OIER: Hori da errelatoa. Hori artean asko egiten da.

SAHATSA: Hori da.

OIER: Etiketatu beharra. Hau da, eskultore... “Ez dakit zer”.

SAHATSA: Hori da.

OIER: “Euskal eskultura berria”. Ez dakit zer izen jartzen dioten.

SAHATSA: Eskultura berria da: 60. hamarkadakoa, XX. Mendekoa... Orduan, imajinatu! Berria? Zer da berria?

SAHATSA; Aizu. Nahi duzu kafetxo bat?

OIER: Bai, beti kafea eskaintzen didanari baietz erantzuten diot.

SAHATSA: Nahiz eta eguneko hamaikagarrena izan.

OFF: Goikaldeko lehioetatik argia sartzen da. Sahatsa Jauregiren estudioan trasto mordoa dago, eta makinaria ere bai.

SAHATSA: Hau soldatzeko mahaia da. Asko erabiltzen dut soldadora, eta plasma mozketarako erabiltzen den tresna hau baita ere. Azkenean, altzairu xaflak zulatzeko eta marrazteko erabiltzen den honek, su-disparo bat botatzen duelako, presioan doana, eta momentuan xaflak urtzen doaz...

OFF: Eguneroko objektuez gain, metala eta beste material batzuk ere erabiltzen ditu Sahatsa Jauregik eskulturak egiteko. Baina bere lana ulertzeko, ezinbestean bera ulertu behar dugu, eta horretarako, atzera egin behar da, bere haurtzarora.

OFF: Sahatsa Jauregi, Itaparikan jaio zen, Brasilen.

SAHATSA: Bai, gurasoak 1980an joan ziren bertara bizitzera. Bueno bizitzera, ez zekiten oso ondo zertara zihoazen, baina, gogo asko zeukaten hemengo girotik aldentzeko eta esperientzia berriak bizitzeko. Oso gazteak ziren. Beraiek ere ezagutu berri ziren, eta han eman zituzten lau urte bueltaka, itzuli gabe. Beraien operazio zentroa San Cristobal de las Casas izan zen. Alegia, atxikimendu handiena Mexikorekin egin zuten. Baina Ekuadorren ama haurdun gelditu zen, horrela, modu nahiko sorpresiboan. Hori gertatu zenean Itaparikan zeuden, eta esan zuten: hau leku oso lasaia da, paseoak eman ahal ditugu hondartzatik... Eta beraz, Itaparikan egon ziren nire amaren haurdunaldiaren ia parte osoan, edo azken hilabeteak gutxienez, eta gero handik gutxira itzuli ginen. Orduan, bai, egia da, Itaparikan jaio nintzen, baina gurasoek ez zidaten niri lekuarekiko lotura estu bat transmititu, ez? Alegia, pixka bat anekdotikoa edo zirkunstantziala da ni han jaio izana.

SAHATSA: Gero, egia da ere, asko mugitzen ginela... Beno, adibidez, ez dut gogoratzen inoiz telebista eduki izan genuenik, ezta jostailu asko nituenik ere. Alde batetik, ba ez genituelako gauza asko zentzu horretan, eta bestetik ere, diru gutxi geneukalako. Gogoratzen dut, hori bai, aukera asko ematen zituzten jostailuak. Batez ere, marraztea oso ekonomikoa delako eta gauza asko sortu daitezkeela lau margo eta paper batzuekin. Eta Legoa ere bai. Baina noski, gerora joan naiz ikusten, eta ikusi dut legoa ere, asko aldatu dela, eta gaur egun Legoa, Kinder sorpresa batetik gertuago dagoela...

OIER: Tematikoa da.

SAHATSA: Tematikoa da. Zuk gauza konkretu bat egiteko kutxa ba erosten duzu? Ni Legorekin hasi nintzenean, piezak soilik ziren...

OIER: Duplo ere bai. Duplo tetris bat zen, baina handiagoa bezala. Nik gogoratzen dut.

SAHATSA: A, bai, bai... Hori nik ez nuen eduki. Legoak genituen, hiru, eta hor oinarritzko aukera batzuk bazeuden, eta hortik edozer gauza sortu ahal zenuen. Nire haurtzaroan gehien akonpainatu nindutenak, bi gauza horiek izan zirela esango nuke. marraztea eta Legoa. Bai...

SAHATSA: Sei urtetik aurrera, hor, bi zati daude: amaren mundua eta aitaren mundua. Amaren mundua Hernani da, lagunak, Tilos da, eta bapatean, manifik dira, bat batean hori, ez? Kolektibotasun horretan parte hartu nahi izatea ez? Nortasun kolektibo hain potente eta babes-forma zeukan horretan. Eta aitaren mundua, baserria. Eta hor bai, lan asko egin behar izana, denbora libre asko aspertzeko. Esan nahi dut, ez denbora librea, orain ulertzen den bezala, heldutasunetik, non lana daukazun eta gero denbora librea daukazun. "Gaur arratsaldean, zer egingo dut hemen?" Ez dakit, pixka bat, oroitzapen hori badaukat. Baserriko ordu luze horiek... Aita eta bere bikotea zena, zortzi urtez baserri bat zaharberitzen egon ziren. Gogoratzen dut garai hori... Nire kasara moldatu beharrekoa...

OIER: Objektuek garrantzia dute zure obran. Zurekin gauza bat konpartitu nahi nuen... Lehengoan Bilbon egon nintzen. Gure familia bilbotarra da, eta Bilboko amamaren etxean, osabarekin argazki zaharrak ikusten, eta oso zirraragarria izan zen. Ze argazkietan agertzen ziren, XX. mende hasierako objektu, eta lanpara, eta gauzak daude amaren etxean... Eta gogoratzen dut osaba luparekin bilatzen, objektuak...

SAHATSA: Argazkietan?

OIER: Bai... "Begira. Oier, hau, hori da." Horrela izan zen, zirraragarria. Sentsazioa ematen dit. Dena oso iragankorra den garai batean bizi gara. Dena gainetik pasatzen zaigu eta ez zaigu ezer gelditzen. Zerk biziraungo digu guri? Ez?

SAHATSA: Bai, niretzako izan zen... Ez dakit, zaila da. Eta hau... Artistak orokorrean, baina artista plastikoak konkretuki elkarrizketatu dituzunean gertatuko zitzaizun. Zaila dela erantzuten konkretuki bat zergatik ekiten diozun praktikari. Ze ez dakizu ezta zuk, Eta horregatik ere da interesgarria. Ez dakizulako oso ondo nondik datozen, ateratzen zaizkizun forma horiek. Egia da ni objektuekin hasi nintzela eskultura egiten. Ez nintzela hasi lehen aipatu dizudan alderdi, purista antirepresentazional horretatik. Unibertsitatean ez nuen ia eskulturarik egin. Orduan, objektuak jada existitzen diren zeozer direnez, bolumen bat daukate, eta errealitatea daukate. Orduan, eskulturaren oinarritzko printzipioak barneratzen lagundu zidaten. Objektuak beraien artean harremanetan jartzearen praktikak, edo horrelako zeozer, ez? Orduan hor, oso modu oinarritzkoan, bolumen bat espazioan sostengatzea zer den ulertzen hasten zara pixka bat.

OFF: Euskal eskultura burdina, harria eta egurra erabili izan dira lehengai gisa. Sahatsa Jauregik ere horietako zenbait erabiltzen ditu, baina objektuen bidez.

SAHATSA: Edozein objektuk balio zidaten? Noski ezetz. Garai horretan asko interesatzen zitzaidan, edo asko pentsatzen nuen, onaren eta gaizkiaren inguruko hausnarketa horietan. Edo sentitzen nuen eduki zezakeela irreberentzia puntu bat... Hau gaur egun esatean, pixka bat naif nintzela sentitzen dut, baina, beno..., bere garaian, gustu txarreko objektuak erabiltzea zeozer ba..., "irreberentea" edo izan zitekeela pentsatzen nuen. Orain zalantzan jartzen dut, eta "kakotxak" jartzen dizkiot. Ze badakigu merkatuak dena irensten duela, eta denarekin bulimia egiten duela, eta gustu ona eta gustu txarra, dena dagoela asimilatua oso. Baina orduan asko pentsatzen nuen objektuen denboran ere. Eta garai batean faszinantea egiten zitzaidan objektu bat, jada pixka bat obsolesentzia jota hiltzen hasten zena edo hauts metaforikoak gainean jartzen hasten zitzaiona. Dekadentzia puntu hori bezala. 'Rise and fall...' Gora igo da, eta orain pixka bat jaisten ari da. Orduan...

OIER: Hori esaten duzu, hautsa geratzen zaiola. Baina niri sentsazioa ematen dit gaur egun ez dagoela astirik ezerean gainean hautsa pausatzeko, ez? Buelta asko ematen dizkiot horri. Zenbat aldatu diren gauzak mende batean.

SAHATSA: Bai, bueno, orain dela pare bat aste frigorifiko bat erosi nuen. Egia da, nik ere, merkeena erosi nuela. Eta puskatu egin zait.

OFF: Elkarrizketa egiten jardun garen mahaiaren alboan beste mahai bat dago. Honakoa, trastoz beteta.

SAHATSA: Trofeoak, bisuteria, engantxeak... Badaude lehen ensanblaje bidez egiten nituen eskulturak, aipatu dudana bezala, erositako objektuekin. Eta garai batean eskulturak izan zirenak hor daude gordeta.

OIER: Ze polita hori!

SAHATSA: Bai. Portzelanazko maskarak kolezionatzen ditut... Bereziki interesatzen zaizkit...

OIER: Portzelanazko maskarak dira hauek?

SAHATSA: Bai, eta bereziki interesatzen zait dekorazioaren puntu hau. Momentu hau, non portzelana eta plumak elkartzea ideia ona zela erabaki zen (kar kar), eta orduan, aurkitzen ditudan objektuak...

OIER: Eta non topatzen dituzu hauek?

SAHATSA: Hau bigarren eskuko dendetan eta horrela. Gero lagunek ere ekartzen dizkidate, eta horrela...

OIER: Hor sugetxo bat ere bai...

SAHATSA: Ba egia esan, eskulturatan sartzea pila bat kostatzen zaidan objektu bat da. Dezente dauzkat, lagun batek oparitu zidalako. Baina ez dakit... Oso ederra da. Hain hain da ederra... Batzuetan behar dut, edertasuna bilatzea. Baina objektuak niretzako oso ederrak direnean, kostatzen egiten zait.

OIER: Petanka.

SAHATSA: Bai, esferak... Horrela, forma bezala, bada forma enigmatikoa.

OIER: Portzelana, kristala eta metala.

SAHATSA: Bai. Marmola ere bai, baina gehiago oinarri moduan.

OIER: Manikia.

OIER: Lagun batek esan zidan gaur egungo artistetatik punkiena zarela. Gaur egungo euskal eskultoretatik punkiena zu zarela.

SAHATSA: Zeinek esan zizun hori?

OIER: Ez dakit. Ezin dut esan.

SAHATSA Gero, 'off the record', agian aterako dizut. Bai? Ez dakit... Beno, bertute moduan jasotzen dut. Iruditzen zait sekulako lorea dela hori esatea. Bai... Ez dakit, baietz, pentsatzen dut. Punkitasuna bi modutan ere ulertu daiteke. Badago jada iruditeria itxi bat. Eskorbuto musika taldearen iruditeria. Zer da punki izatea? Hortik ere nahiko gertu nago, erabiltzen dudana material eta estetika motagatik. Eta gero, jarrera aldetik, ezta? Beno, ez dakit. Nahiko nuke bi alorretan egon ahal izatea. Bi leku horietan

SAHATSA: Anin Job izeneko artista alemaniar batek erakusketa bat egin zuen Pariseko Palais de Tokion. Eta diru asko zegoen erakusketa bat izan zen, ebento bat, eta fenomeno bat izan da arte garaikidearen barruan. Berak Elisa Douglas izeneko bikote bat dauka, eta Elisa Douglas honek, Balenciagaren musa izateaz gain, marrazten du, musika egiten du... Dibina da. Eta Anin Job ere dibina da. Biak dira super dibinak. Eta diru asko daukate, eta asko gustatzen zaie ere estetika ilun hau... Seguraski zure lagun horrek beraiek ere punkiak direla esango luke. Eta Palais de Tokion erakusketa muntatuta zegoen, eta egin zituzten ebento ezberdinak, performance ezberdinak, non gonbidatzen zuten jendea dantzatzera, performanceak egitera... Gauzak gertatzen ziren. Eta azken asteetan, agian horretan egon naiz ikertzen performance horietan.

OIER: Nik aipatu nizun artista bat. Berlinen egon da, National Galleryn dago... Isa Gensken.

SAHATSA: A, noski. Hasteko, Isa Gensken amona da! Grandma! Bai, Isa Gensken. Beno, ba, Isa Genskenek, nire ustez, historiako eskultura publiko ederrena dauka: larrosa bat. Super

sentzilloa, oso polita da. Eta arrosa horrek agian Koldobika Jauregiren aizkorak baino metro gehiago edukiko ditu. Ez dakit. Ez dut inoiz errealitatean ikusi. Isa Gensken, bai, ez dakit zenbat urte dituen... Nik uste dut 70 urte edo edukiko dituela. Buelta horretan egongo dela.

OIER: Gehiago agian.

SAHATSA: Agian gehiago. Eta egiten duen artea da... Nik uste dut gehiago disfrutatzen dudala horren atzean zer jarrera dagoen pentsatuz. Ez? Esanez: adin horretako emakume batek nola egin dezakeen egiten duena. Gero, piezak. Baina batzuetan piezak gustatzen zaizkit, eta beste batzuetan ez... Baina bai, umore pila bat dauka. Egunerokotasuneko objektuekin egiten duen erabilpen ez-epaitu hori, oso askea da. Oso. Bai, asko gustatzen zait.

OIER: Erreferentzia bat da zuretzako.

SAHATSA: Bai, bai, oso erreferentziala da. Gehienetako bat agian.

OIER: Begira...

OFF: Sahatsa Jauregi bere tailerrean, bere estudioan utziko dugu.

OFF: Honela amaituko da gaurko saioa.

OFF: Hurrengoan beste sortzaile edo artista baten lantokian sartuko gara. Agur.

BASQUE. Ulu Mediak Etxepare Euskal Institutuarentzat ekoizten duen podcasta da.

Oier Aranzabal da proiektuaren zuzendaria eta soinu diseinatzailea. Cristina Tapia Huici da ekoizlea. BASQUE. gustatu bazaizu partekatu eta jarrai gaitzazu edozein audio plataformatan. Euskal kulturari eta sormenari buruzko istorio gehiago aurkituko dituzu [basqueculture.eus](https://basqueculture.eus) webgunean eta [etxepare.eus](https://etxepare.eus)-en.

Eskerrik asko entzuteagatik. Hurrengo atalean entzungo dugu elkar!